

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Funtsezko baliabideei dagokienez, gure proiektua martxan jarri ahal izateko eta funtziona dezan hainbat baliabide beharko ditugu.

Horietatik baliabide fisikoei dagokienez hainbat gauza beharko ditugu: alde batetik, birziklatzeko makina. Hau hautatzerakoan teknologia berria eta kalitate handiko ekipoetan inbertituko dugu, honek eraginkortasuna nabarmen hobetuko duelako eta kostuak murriztuko dituelako epe luzera. Beste aldetik, Eko txartela. Honi esker birziklatzearen ondoriozko dirua eskuratu eta garraio publikoan erabiltzeko prest izango dugu.



Baliabide fiskoetaz gain, giza baliabideak ere beharko ditugu, hain zuzen ere makinaren funtzionamendu egokiaz arduratuko diren teknikoak. Oso garrantzitsua da gure makinetan implikatuta dauden teknikoak edukitzea edozein akats konpondu ahal izateko; izan ere, makina bat denez, huts egin dezake, oso moderno eta berria izan arren.

Funtsezko baliabide hobeak lortzeko hainbat modu ditugu, eta honako hauek dira nabarmenenak:

- **Plangintza:** Epe laburrerako eta luzerako jomugak ezarri eta horiek lortzeko plan bat sortu dugu lagungarria izan daitekelako baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen ari direla ziurtatzeko.
- **Optimizazioa:** Barne-prozesuak berrikustea eta optimizatu, eraginkortasuna handitzeko.
- **Lankidetzak:** Baliabideak edo ezagutzak partekatzeko beste pertsona edo enpresa batzuekin lan egingo dugu eraginkortasuna handitzen eta kostuak murrizten lagun dezake.
- **Trebakuntza:** Langileak baliabideen erabilera eraginkorrean eta erabaki estrategikoak hartzen trebatuko dira. Honek, baliabideen erabileraren eraginkortasuna hobetzen lagun dezake.

